

Gure EGITEKOAN eta IKUSPEGIAN jasotzen den moduan, Eusko Jaurlaritzaren sozietate publiko instrumentala gara, errentamenduaren bidez kolektibo behartsuenei etxebizitza-beharren estaldura bermatze aldera zerbitzuak eskaintzeko, modu koordinatuan Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin eta EAEn inplikaturako beste eragile publiko eta pribatu batzuekin, iraunkortasun-irizpideei jarraituz.

Horretarako, ALOKABIDEn Zuzendaritzak agindutako politika publikoak eta Eusko Jaurlaritzaren estrategia eta planak aurrera eramateko konpromisoa hartzen du,

- ❖ Aplikagarriak diren erreferentziako gidalerro, arau eta ereduaren baldintzak betez.
- ❖ Kudeaketa aurreratuaren elementuak jorratuz etengabeko hobekuntzaren, ikaskuntzaren eta berrikuntzaren bidez.
- ❖ Gure kultura BALIO KORPORATIBO sendoetan oinarrituz.
- ❖ Gure estrategia iraunkortasunaren prismaren arabera garatuz, gure inguruaren gizartea, ekonomia eta ingurumena hobetzen aktiboki lagunduz.
- ❖ Gure-interes taldeak asebetetzera bideratuz; horretarako, balio-ekarpen arduratsu eta orekatua bilatzen dugu modu efizientean, eta haiekin gure izaera publikoak berezko dituen legezotasun, gardentasunaren eta konfiantzaren printzipioetan oinarritutako harremana dugu.

Gure kudeaketa-filosofia POLITIKA eta planen multzo koherentean zehazten da. Haien bidez, egunero egiten duguna eta hori egiteko modua hobetu nahi dugu, eta etengabeko hobekuntzaren eta jardunbide onen bilaketa eta ezarpenaren aldeko apustua egiten dugu. Horretarako, erreferentzia gisa hartzen dugu Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (estrategia, bezeroak, pertsonak, gizartea, berrikuntza, emaitzak), zeinak aukera ematen digun gure estrategia prozesuen bidez modu bateratuan hedatzeko, eta, horretarako, plangintzaren, exekuzioaren, jarraipenaren eta berrikuspenaren PDCA ziklo sortzen dugu, gure hobekuntzaren eragile dena.

Hori guztia lortzeko, eta Zuzendaritzak hala onartu du, ezinbestekoa da enpresa osatzen dugun pertsonon ahalegina eta inplikazioa, taldearen giza garapena eta profesionala sustatzea, berdintasunean oinarritutako lan-giro positiboan eta kultura korporatibo sendo eta komuna partekatzea.

Hori jasota gelditu dadin, jendaurrean jartzen ditugu Kudeaketa Korporatiboaren Politika honetan adierazitako konpromisoak.